

“Gure bizitzan guk izan behar dugu protagonista”

Asisko Urmeneta | Bermutari ohia

ADSL-a iritsi ez den herri bateko plazan hormigonera bat dago. Hormigoneraren giblean beti zabalik dagoen ate bat, eta atearen atzean, Asisko, teoria fartsanteen faktoria.

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Gaizka Iroz

Aldatuzale kroniko bat omen zara.

Nik ez dut deus sinatu betirako ezta nire buruarekin ere.

Baina Iruñeko harresietatik jauzi egitea ere...

Nire bizitzan egin dudana obra artistiko on bakarra izan da.

Ederra zure koadrilakoa izatea!

Niretzako koadrila oso eremu kastrantea da. *Koadrilismoa* borrokatu behar da. Elektroi autonomo eta auto-genoaren figura askoz gehiago interesatzen zait.

Irudigintzatik bizi den elektroia?!

Egiten dakidan gauza bakarra izateaz gain, komunikatzeko nire neurritan egindako bitartekoa da. Baina ez naiz bizi maite dudanetik bakarrik.

Langilea zarela, alegia.

Ideologiaz eta militantziaz lana deuseztu behar dela uste dut baina lanak on egiten dit. Oso autodiziplinatua naiz.

Zure buruari prezioa jartzeko beste?

Formakuntza bat egin behar nuke planeta honetan bizitzeko. Ez dakit prezio bat negoziatzen, ez saltzeko, ezta erosteko ere.

Eskerrak Kukuxumusu daukazun!

Jesukristok berak lortu ez zuena lortu du Kukuxumusu: mundu guztiarekin ongi konpontzea.

Jesukristoren miraria, helduentzako euskarazko liburu ilustratu bat!

Urteetako nire aldarrikapena da. Zergatik kondenatu gaituzte helduak irudirik gabeko adreiluak irakurtzera?

Komikiaren feria indartsu bat ez dagoelako, agian?

Feria baten atzean, produkzio sendo bat, industria bat, eta profesional saldo bat egon behar da. Ez gaituzten eragina, Euskal Herrian ez dago.

Baina Euskal Herrian *Gartxot* dago.

Sintomatikoa da. Frantzia eskatu duela hiru urteko liburu bat eta erranen dizute begiratzeko Interneten.

Napartheid bat eskatuz gero orduan...

Gure ekimen bat izan zen. Ez ginen nor kontratatuko zain egon. Egin nahi genuena egin genuen. Gure bizitzan guk izan behar dugu protagonista.

Eta protagonista gure baitako filologoa denean...

Hori kalitu behar da, garbitu.

Baina ez al genuen euskara informala sortu behar?

Kasurik makurrenean erderetara jotzen dugu eta kasurik onenean euskalkietara. Baina jakina, hemen funtzionatzen duenak ez du baitezpada han funtzionatzen.

“Han” ez da “Iparraldean” izango?

Iparraldekoak kontutan ez hartzeak automatikoki egiten nau espainolagoa.

Noizko Asisko Euskaltzain?

Ez naiz Jaurlaritzaren eledun, ezta Diputatu Nagusiarren emazte ere. Baina hautagaitza jasatekotan, Txillardegiren oinetan pausatuko nuke.

Nik uste nuen edozertaz egin zitekeela irri.

Umorea gata bezalakoa da, larria edo xehea. Gai guztiak tratatu daitezke baina umore edo gata xehez.

Euskal Herrian ere bai?

Apoloziaren legeak distorsionatzen du dena. Nik banituzke gauza batzuk ETArri leporatzeko, baina ez zait interesatzen kontra mintzatzea alde mintzatzea debekatua dela jakinik. ■